

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Kontxi Zorrozueta Zabaleta Piñu*

*Gernika-Lumo,  
Bizkaia  
(1926-2017)*

Aurkibidea



## Biografia



"Piñu" ezizenez ezaguna zen Buztargina izeneko baserrian jaio zen, gurutze gorriaren aurrean, iturriaren atzealdean (gaur egun desagertua). Ama bertakoa zuen eta aita Errigoitikoa. Umetan Pasealekuko eskolan eta Segundo Olaetaren musika-eskolan aritu zen.

Bonbardaketan, beraien auzoko Agirre "Agarre" baserriaren sagardian babestu eta hantxe egon zen hiru ordu eta erdiz mobidu barik etzunduta. Beraien etxea osorik gelditu arren, gau hartan Errigoitira joan ziren aitaren jaiotetxera. Gerraostean erizain lanetan aritu zen Alegria medikuagaz, baina behar horiek alde batera utzi behar izan zituen penaz. 12 urtez AEBko Idahon bizi izan zen bere senarrak taberna-jatetxea izan zuen han-eta. GER-107/108 zintetan bere auzoak ziren [Xexili Mintegia](#) eta [Mertxe Hildalgogaz](#) batera eman zigun antzinako bizipenen berri.

## Zintak

### GER-093

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-12-19
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

### GER-094

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-12-19
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-107

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-04-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-108

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-04-27
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. "Piñu" baserria

- **Erref:** GER-093/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:02:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

#### Laburpena:

Kontxiren jaiotetxea, "Piñu" baserria, non zegoen azaltzen du: gaur egun gurutze gorriaren aurrean dagoen iturriaren atzeko aldean. Iturri hartan autobusak-eta gelditzen ziren ura hartzeko. Gerraostean bota zieten baserria: lurrekin batera dena kendu eta sindikatuko etxeak eraiki zituzten.

### 2. Ohean zeudela hasi ziren etxea botatzen 3 familia kalean utziz

- **Erref:** GER-093/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:02:28. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

#### Laburpena:

Gorriak pasatakoak dira. Bere jaiotetxea, "Piñu" baserria, beraiek ohean zeudela hasi ziren botatzen. Lurrak eta baserria kendu eta sindikatuko etxeak eraiki zituzten bertan. "Bigarren ospitalea" deitzen zioten etxeari, gerran eraildako osabaren 5 umeak eta alarguna ere beraienean bizi ziren-eta; guztira 3 familia.

### 3. Piñu baserri ingurua eta auzoak

- **Erref:** GER-093/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Pi&ntilde;u baserriaren ezizena etxe aurrean zegoen eta dagoen pinu handitik zetorren. Inguruan zeuden etxebizitzak eta bertako auzoak aipatzen ditu.</p>

**4. Kaleko jolasak eta gaiztakeriak**

- **Erref:** GER-093/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Kalean autorik ez zebilenez bertan jolasten zuten, bidean. Auzoko mutikoak trasto hutsak ziren eta broma asko egiten zituzten: adibidez, ate gainean ura jarri zabaltzean jausteko.

**5. Neba-arrebak beti kizkan**

- **Erref:** GER-093/009
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:10:46. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

Bere ni nebak beti aritzen ziren "kizkan", matrakan. Behin bere nebari zozpal (astilla) bat bota zion buru gainera eta bertan gelditu zitzaion.

**6. Umetako ibilerak**

- **Erref:** GER-093/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>Behin Santa Luziako San Lorentzo jaietara auzoko beste birekin joan zen bertara, Xexili eta Lourdesegaz, eta bidean Kontxik dirua topatu zuen. Beste behin Txitxi-burruntzi egunez, Lumorako bidean gora heldu orduko jan zuten jan beharrekoa.</p>

**7. "Urtebarri karri" abesten**

- **Erref:** GER-093/014

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

**Laburpena:**

<p>Urteberri egunez, bere auzoko Xexili eta Lourdesegaz etxerik etxe joaten ziren kantatzen. Dirua, intxaurrak... batzen zituzten. Abestiaren hasiera abesten du.</p>

## 8. Kantu eskean auzoan eta Lurgorrin

- **Erref:** GER-093/018
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:17:01. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

Umetan auzoko bi lagungaz urteberri egunez eta Erregenetan kantuan aritzen zen eskean. Jasotakoa hiru lagunaren artean banatzen zuten. Ez ziren Gernikara, kalera, bajatzen; Lurgorrira arte joaten ziren eta hura jada urrun zegoelakoan zeuden.

## 9. Enbeitatarren pikuak osten; piku motak

- **Erref:** GER-093/019
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>Bere etxearen eta Kaltzada egoitzaren artean Enbeitatarren etxea zegoen. Haiek piku horiak zituzten eta horrek euren arreta erakartzen zuen, euren etxekoak txapel-ikuak, trapuzarrak eta zuriak ziren eta. Etxean ere izan arren, auzokoarenak gurago zituzten eta ostu egiten zizkieten. Enbeitatarren etxe ondoko hormatik Kaltzada egoitzara begira egoten ziren bertan zegoen mutil gaixo bati barre egiten. Sasoi hartan gaixoak ez ziren kalean ibiltzen eta gauza berria zen eurentzat.</p>

## 10. Solfeora eta eskolara

- **Erref:** GER-093/020
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Gernikara, kalera aldera, eskolara eta solfeora joateko bajatzen ziren. Solfeoa eliza ondoan ikasten zuten Segundo Olaetarekin. Bonbardaketan dena utzi behar izan zuten. Eskolan doña Florencia eta doña Dolores izan zituen maistra; gerraostean doña Pia..

**11. Erizaintza ikasten**

- **Erref:** GER-093/021
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

15 urte zituela, erizain izateko ikasten aritu zen don Pako Alegria eta don Domingo Alegria medikuekin. Nahiz eta gustukoa izan, mediku hura gaixotu eta ezin izan zuen jarraitu etxean ere lagundu behar zuen-eta.

**12. Liburu bakarragaz oso ondo ikasi zuen**

- **Erref:** GER-093/022
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:26:51. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Gerra aurretik, eskolan koadernoa eta lapitza baino ez zuten. Entziklopedia baten zuten ikasi beharreko guztia. Orduan ikasitakoak oso ondo gogoratzen ditu.

**13. Mutilekin hartu-emanik ez**

- **Erref:** GER-093/024
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

<p>Beraien adineko mutilak ezagutu ere ez zituzten egiten. Auzoko mutilak eta nebak baino ez zituzten ezagutzen.</p>

**14. Kanikaka eta sokasaltoan**

- **Erref:** GER-093/026

- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:31:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Umetan sokasaltoan eta kanikaka aritzen ziren. Ez daki ziur kanikak beraienak ete ziren, dirua balio zuten-eta.

## 15. Panpina bakarra, jostailurik ez

- **Erref:** GER-093/028
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>Umetako panpina bakarra du gogoan, Gabonetan logela leihoan utzi zioten ama Bilbora joan ostean. Hala ere, ez zuten horrelako jostailurik behar.</p>

## 16. "Zure aitte aberatsa zan"

- **Erref:** GER-093/029
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Bere auzoko batek Kontxiren aita aberatsa zela esan zioen. Gari-joteko egunetan, bere aitak dirua ematen baitzien eta amak bakailaoa prestatu.

## 17. Aita Kuban harakin

- **Erref:** GER-093/030
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:34:57. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Bere aitak 14 urte zituela, Kubara joan zen gaztelaniaz berba bat ere jakin barik. Bi hilabeteko bidaia egin zuen. Harakin lanetan aritu zen. 22 urte zituela bueltatu zen eta Taberna Vascara joan zen apopilo; Kubatik bidalitako diruarekin baserria erosi zuten haren gurasoek, baina arrebaren izenean jarri. Taberna Vascan ezagutu zuen Kontxiren ama eta Piñura joan zen bizitzen.

## 18. Natilla zelakoan maionesa jan

- **Erref:** GER-093/032
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:38:01. **Bukatu:** 00:39:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

<p>Kontxiren izeko batek Taberna Vascan egiten zuen behar eta Kontxi sarritan joaten zen bertara. Behin, saltsontzi batean atzamarra sartu zuen natilla zelakoan, baina maionesa zen, ozpindutakoa gainera.</p>

## 19. Dotrina ere erdaraz

- **Erref:** GER-093/034
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:39:33. **Bukatu:** 00:40:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

<p>Dotrinan ez zuten ezer ikasi euskaraz, ezta Aita Gurea ere. Gerraostean euskaraz egitea galarazita zegoen.</p>

## 20. Osaba hil egin zuten

- **Erref:** GER-093/035
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:40:33. **Bukatu:** 00:41:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

<p>Beraien osabak diputazioan egiten zuen lan. Kontxiren neba batekin batera osabarenera joan ziren bonbardaketa ostean. Osaba preso hartu eta hil egin zuten.</p>

## 21. "Berba eitten bazuen euskeraz, ointxe errixora"

- **Erref:** GER-093/037
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

Bere osaba Juan Carlos diputazioko behargina zen eta fusilatu egon zuten.

Bilboko Gran Vian Kontxiren amuma eta osabaren ama euskaraz berbetan zeudela, militar batek hauxe esan zien: "Berba eitten bazuen euskeraz, ointxe errixora botakotsuet bixori". Gerraostean ere, etxean beti euskaraz egiten zuten; kalean eta auzokoekin, ostera, erdaraz. "Agur" ere ezin zitekeen esan.

## 22. Saraspe: euskara eta erdararen arteko muga

- **Erref:** GER-093/039
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:43:48. **Bukatu:** 00:44:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

Onaindiatarren etxetik, Saraspetik, Lurgorrira arte euskara zen nagusi; handik behera, erdara. Gerraostean, ostera, gauzak asko aldatu ziren. Ezin zutenez euskaraz egin, berbaera torpetu egin zitzaiola dio; beranduago berreskuratu zuen Estatu Batuetara bizitzen joandakoan.

## 23. Auzokoek ez zuten alde egin bonbardaketan

- **Erref:** GER-093/044
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:54:44. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

### Laburpena:

Beraien auzoko gehienek ez zuten alde egin bonbardaketa ostean. Txikerranekoak bi etxe ziren. Gerraostean eibartar batzuk Juanita Txikerraren lurretan tailer bat jarri zuten trenbide alderantz. Bera Karrantzara arte joan zen, baina beste bonbardaketa bat harrapatu zutenez, etxera bueltatu ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-11-20*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)